


## KONPOSTAJEA BERPIZTEKO KANPAINA

Egun Irurako etxe eta saltokietan sortzen ditugun hiri **hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuagatik urtean 260.000€** ordaintzen dugu. Horri gehitu behar zaizkio hondakinon garraioari eta tratamentuari **lotuta eragiten dugun kutsadura**. Ordea, hondakin horien zati bat **gure kabuz Iruran bertan kudeatzeko aukera dugu**, sortzen dugun hondakin moten artean, **gehiena organikoa baita**.



*Eskuragarri dauden azken datuak dira (2018, Eusko Jaurlaritz)*

Bide horretan, Udalak 2013an organikoa herrian bertan geratu zedin, konpostatzera animatu zintugun. Horretarako, etxeko konpostagailuak banatu genituen eta auzoko konpostagailuak (etxolak) eraiki genituen. Urte asko pasa dira ordutik, eta konpostajearen ohitura berpizteko eta herritar ororengana zabaltzeko deialdi berria egin nahi dugu.

**Interesa duzuen herritarrek izena emateaz gain, zein behar dituzuen jakin nahi dugu. Egun egiten duzuenak ere zeintzuk zareten jakin nahi dugu.** Izan ere, etxeko hondakin organikoak konpostaje bitartez kudeatzen duten herritarroi **saritu egingo zaituztegu** (hondakinen tasan hobaria aplikatuz).

Beraz, **konpostajea egin nahi baduzu edo egun egiten baduzu, jarraian dauden bideak erabili:**

- Hurrengo galdetegia bete eta udaletxeko harreran entregatuz (9:00-14:00).
- Telefonoz udaletxera deituz (9:00-14:00).
- Online (Gmail kontu bat izan behar duzu): <https://forms.gle/yBbKuwYTPdfhX83m9>

Izena emateko azken eguna: **2021eko ekainaren 11**, ostirala.

- Izen-abizenak (etxe bakoitzeko izen emate bakarra egin behar da)
- NAN zenbakia
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Egun konpostajea egiten baduzu, nola egiten duzu?
  - Organikoa auzoko konpostagailura (etxolara) eramaten dut. Aukeratu:
    - Haur eskola ondoko etxolara.
    - Anoetara errepidez joateko zubiaren ondoan dagoen etxolara.
    - Anoetara oinez joateko egurrezko zubiaren ondoan dagoen etxolara.
  - Etxearen alboan lur zati bat dudanez, bertan konpostagailua daukat.
- Egun konpostajea ez baduzu egiten, baina hasi nahi baduzu, nola egin nahi duzu?
  - Organikoa auzoko konpostagailura (etxolara) eraman nahi dut. Aukeratu zein etxolara eraman nahi duzun:
    - Haur eskola ondoko etxolara.
    - Anoetara errepidez joateko zubiaren ondoan dagoen etxolara.
    - Anoetara oinez joateko egurrezko zubiaren ondoan dagoen etxolara.
  - Etxearen alboan lur zati bat dudanez, bertan konpostagailua jarri nahi dut.
- Badakizu konpostajea nola egiten den?
  - BAI     EZ
- Ez dakizuenoi ikastaro txiki bat emango zaie (baita hobetu nahi dutenei ere). Ikastaroaz gain, konpostajea egiteko beste laguntzarik behar duzu? Zein laguntza?
- Konpostajea egiten ez dutenak anima daitezen, Udalak zer egin dezakeela uste duzu?

### **Eskerrik asko parte hartzeagatik!**

Zurekin harremanetan jarriko gara ekainean. Gogoratu: konpostajea egiteak saria izango du (hobaria). Edozein zalantza, udaletxera dei dezakezue edo [ingurumena@irura.eus](mailto:ingurumena@irura.eus)-era idatzi. Informazio gehiago "Irura eskura" app-an eta [www.irura.eus/ingurumena/hondakinak/konpostajea](http://www.irura.eus/ingurumena/hondakinak/konpostajea) helbidean.

*\*Versión en castellano disponible en el Ayuntamiento y/o en la dirección [www.irura.eus/compostaje/Quiero-relizar-el-compostaje](http://www.irura.eus/compostaje/Quiero-relizar-el-compostaje)  
Además, dispondrás de toda la información y de manera rápida en la aplicación para móvil "Irura eskura".*